



FOKATU

Urola Garaia

VIII ARGAZKI LEHIAKETA

|| mugikortasun iraunkorra ||

Ezki-Itsasoko, Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako Udalek argazki-lehiaketa hau antolatzen dute gure udalerrietako Tokiko Agenda 21ek oinarri hartu duten gure ingurunearekiko kontzientziarioa bultzatu nahian eta garapen iraunkorraren kontzeptua zabaltzeko nahian. Hauxe da lehiaketaren helburua: gure inguruan dauden arazo sozial, ekonomiko eta ingurumenekoei eta horiek konpontzeko bideei buruz hausnartzera lagunduko dizkiguten irudiak hartzea.

PARTE HARTZAILEAK: parte hartu nahi duten argazkizale guztiak

GAIA: MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Gure egunerokoan joan-etorriak (ikastera, lanera, erosketak egitera,...) egiteko ditugun aukera desberdinak eta erregai fosilen kontsumoa murriztea ahalbidetzen dutenak. Adibidez, oinez, bizikletaz, patinetan, garraio publikoa,... baita ibilgailu elektrikoak edo autoa elkarrekin erabiltzea. Helburua joan-etorriak egiteko modu horiek iraunkorrak ez diren beste garraio-motekin (norberaren autoarena adibidez) alderatzea da.

EREMU GEOGRAFIKOA: argazkia ikusi bezain pronto Urola Garaia eskualdean ateratakoa dela antzeman behar da.

AURKEZPENA:

Formatu digitalean

- Argazkia formatu digitalean aurkeztuko da.
- JPG formatuan bidaliko dira honako posta elektronikora: fokaturolagaraia@uggasa.com
- Gehienez argazkilari bakoitzak 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Posta elektronikoko horretan egilearen datuak adieraziko dira: izena, abizenak, adina eta telefonoa. Horretaz gain argazkien tituluak adieraziko dira.
- Artxibo bakoitza argazkiaren tituluarekin izendatuko da.
- Argazki bakoitza **ERRESOLUZIO BAXUAN bidali behar da** neurriak hauexek izango direlarik: alderik handienez gehienez 2400 pixel eta alderik txikienez gutxienez 768 pixel.
- Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren eta inprimatzeko asmoarekin, antolakuntzak irabazleei argazkia **ERRESOLUZIOA ALTUAN (300ppp)** aurkeztea eskatuko du.

SARIAK:

Heldu mailan (16 urtetik gora):

- 300 €ko sari berezia, trofeoa eta diploma;
- 200 €ko saria eta diploma
- 100 €ko saria eta diploma.

Gazte mailan (16 urtera arte):

- 100 €ko saria eta diploma.

AURKEZTEKO EPEA: 2011ko maiatzaren 1etik ekainaren 20ra, hau barne. Uztailatik aurrera aurkeztutako argazki guztiak UGGASA eta Udaletxeetako Web orrian ikusi ahal izango dira.

EPAIMAHAIA: lau Udalen ordezkari izango den Uggasako kidea eta Ikatza eta Argazkia argazkilarien elkarteetako kide bana.

EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK:

- Argazkien kalitate artistikoa eta teknikoa.
- Orijinaltasuna, aurkeztuko diren lanek proposatuko duten mezua eta Mugikortasun iraunkorraren onurak baloratzea eramango duten hausnarketa-elementuak edo udalerrietan gaur egungo mugikortasun-ereduak sortzen dituen zailtasunak azalarazteko gaitasuna.

EPAIA: ekainaren 24an emango da argitara UGGASA eta Udaletxeetako Web orrian.

SARIAK BANATZEA: ekainaren 27-30 astean, arratsaldeko 18:00etan Zumarragako udaletxean.

OHARRAK:

- Egile batek ezingo ditu sari bat baino gehiago eskuratu.
- Argazkiak UGGASaren esku geratuko dira. Berak gordeko ditu argazkiak erreproduzitzeko eta erabiltzeko eskubideak eta, hala egitean, egilearen izena aipatuko du.
- Ezingo dira lehiaketara aurreko urteetan saria jaso duten argazkiak aurkeztu.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak eta Epaimahaiaren erabakia onartzea dakar berekin.
- Baldintza horiek beteko ez dituen lana automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko da.
- Aurreikusi ez den edozer gauzaren gainean erabaki behar izanez gero, antolatzaileek dute hitza.

